Sin./Fdo.: ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA - 2023-11-23
INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2023-11-30
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DF 00189/2023 - Data/Fecha: 2023-11-30
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-11-30
GZko 47.gaia onartuta - Aprobado, asunto 47) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, 2023an orkatzek eta basurdeek Bizkaiko Lurralde Historikoan eragindako kalteengatik zuzeneko laguntzak ezartzen dituena.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia , por el que se establecen ayudas directas por los daños producidos por el corzo y el jabalí en el Territorio Histórico de Bizkaia en el año 2023

| | | | |
|---|---|---|---|
| ERAKUNDE ONURADUNAK | Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazaritzako ustiategien eta Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorreko abeltzaintzako ustiategien titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak, eta baso-ustiategien titularrak. | ENTIDADES BENEFICIARIAS | Personas físicas y jurídicas titulares de explotaciones agrarias inscritas en el Registro de explotaciones agrarias REA, ganaderas REGA, así como titulares de explotaciones forestales. |
| DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN JARDUKETAK | Orkatzek eta basurdeek eragindako kalteak | ACTUACIONES SUBVENCIONABLES | Daños producidos por el corzo y el jabalí |
| DIRULAGUNTZAREN GEHIENEKO ZENBATEKOA | Foru-dekretuaren baremoaren arabera | CUANTÍA MÁXIMA DE LA SUBVENCION | Según baremo del Decreto Foral |
| LAGUNTZA EMATEKO ARAUBIDEA | Zuzena | REGIMEN DE CONCESIÓN | Directa |

Orkatza zerbido txiki bat da, eta Bizkaiko Lurralde Historiko osoan dago. Elikadurari dagokionez, haren dietaren ardatza belarrak eta zuhaixka- eta zuhaitz-espezieen kimuak dira.

Basurdea, berriz, ugaztun artiodaktilo ertaina da, eta baso-eremuetan du aterpe. Espezie orojalea da, eta frutak, haziak eta larreak jaten ditu, baita ornogabeak, anfibioak eta mikrougaztunak ere. Horrez gain, etxeko animalien eta basoko animalien sarraskia jan ohi du.
Espezie horiek ingurunean duten jasate-ahalmena gainditzen denean, kalteak sortzen dira nekazaritza- eta basogintza-ingurunean, eta, beraz, bidezkoa da

El corzo es un pequeño cérvido que está presente en todo el Territorio Histórico de Bizkaia. Su alimentación se concreta en una dieta basada en la ingesta de herbáceas y en el ramoneo de especies arbustivas y arbóreas.

Por su parte, el jabalí es un mamífero artiodáctilo de tamaño medio que encuentra cobijo en zonas forestales. Es una especie omnívora y que basa su alimentación en la ingesta de frutas, semilla y pasto, así como de invertebrados, anfibios y micromamíferos, siendo consumidor habitual de carroña tanto de animales domésticos como silvestres.
Cuando la capacidad de carga de estas especies

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiak eragindako jabeentzako konpentsazio ekonomikoak arautzea, eragindako kaltea arintze aldera.

en el medio es superada, se producen daños en el medio agrario y forestal por lo que procede regular las compensaciones económicas a los propietarios/as afectados/as que palíen por parte de la Diputación Foral de Bizkaia el posible daño causado.

Urriaren 16ko 216/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzen du, non orkatza eta basurdea ehiza larriko espezie gisa agertzen diren.

El Decreto 216/2012 de 16 de octubre establece el listado de especies cinegéticas de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el que el corzo y el jabalí figuran como especies de caza mayor.

Foru-aldundiak urtero onesten dituen foru-aginduetan, orkatzen ehiza arautzeko, kupoak eta sexuak jasotzen dira, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak urtero egiten duen azterketa zinegetikoan eta zainpeko ehiza-eremuetako eta ehiza-barrutietako ehiza antolatzeko plan teknikoetan oinarrituta.

En las órdenes forales que cada año aprueba esta Diputación Foral a fin de regular el ejercicio de la caza respecto de los corzos se recogen los cupos y sexos en base al estudio cinegético que anualmente realiza el Departamento de Medio Natural y Agricultura y a los planes técnicos de ordenación cinegética de las zonas de caza controlada y los cotos de caza.

Basurdearen kasuan, ehizaren plangintza uxaldien bidez egiten da; Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailean izena emandako kuadrillek parte hartzen dute horietan. Espezie horren beste erauzketa batzuk harrapaketa selektiboaren bidez egiten dira. Horretarako, kaiolak erabiltzen dira, eta, neurri txikiagoan, zelata-ehiza eta gaueko kontrol selektiboak.

En el caso del jabalí, la planificación de la caza se realiza mediante la ejecución de batidas en las que participan las cuadrillas inscritas en el Departamento de Medio Natural y Agricultura. Otras extracciones de esa especie se llevan a cabo con la captura selectiva mediante el uso de jaulas, en menor medida con las esperas o aguardos y mediante controles selectivos durante la noche.

Hala eta guztiz ere, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak ehiza-espezie horien gainean egiten dituen populazio-kontrolak gorabehera, animalia basatiak dira, eta kalteak eragiten dituzte nekazaritzako ustiategietan eta baso-sailetan.

No obstante, lo anterior, y a pesar de los controles poblacionales que lleva a cabo el Departamento de Medio Natural y Agricultura sobre esas especies cinegéticas, son animales salvajes que causan daños tanto en las explotaciones agrícolas como en las plantaciones forestales.

Horregatik, beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak, batetik, eragindako pertsonek jaso beharreko laguntzak arautzea eta, bestetik, horiek jasotzeko prozedura eta betekizunak ezartzea.

Por todo ello, se considera necesario que la Diputación Foral de Bizkaia regule las ayudas a percibir por las personas afectadas y establezca el procedimiento y requisitos para su percepción.

Laguntza horiek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren esparruan planteatzen dira. Erregelamendu hori Batzordearen 2019ko otsailaren 21eko 2019/316 (EB) Erregelamenduak aldatu zuen. Erregelamendu horrek mugatu egiten du Estatuak ustiategi bakoitzeko emandako laguntzen zenbateko osoa: 20.000 €, hiru zerga-

Estas ayudas se plantean en el marco de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 1408/2013 de la comisión de 18 de diciembre de 2013, modificado por el Reglamento (UE) número 2019/316 de la Comisión de 21 de febrero de 2019. El citado Reglamento limita el importe total de ayudas concedidas por explotación por el Estado a 20.000€ durante cualquier periodo de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ekitaldiko edozein alditan.

tres ejercicios fiscales.

Foru-dekretu honen bidez, lehen sektorea babesteko zuzeneko laguntzak antolatzen dira, haien egoera larria ahal den neurrian arintzeko eta ondasun publikoen hornitzaile gisa duten garrantzia kontuan hartuta, hala nola, elikagaien segurtasun nazionala, lurraldean biztanleria finkatzea, lurraldearen zati desberdinen arteko berroreka edo guztiontzako bizi-aukeren eskaintza.

A través de este Decreto Foral se articulan unas ayudas directas de apoyo al sector primario, con el fin de paliar en la medida de lo posible la grave situación en que se encuentran, y en atención a la importancia de los mismos como provisores de bienes públicos, tales como la seguridad alimentaria nacional, la fijación de población en el territorio, el reequilibrio entre las diferentes partes del territorio o la oferta de oportunidades vitales para todos.

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.a).9 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru-organoek eskumen esklusiboa dute nekazaritza- eta baso-lurzoruak kontserbatu eta hobetzearen inguruan.

El artículo 7.a).9 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos establece que los Órganos Forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva sobre conservación y mejora de los suelos agrícolas y forestales.

Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta haren egitura organikoa onartzen duen maiatzaren 31ko 79/2022 Foru Dekretuan (bereziki 1. eta 47. artikuluetan) ezarritakoaren arabera, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak ditu esleituta ordenamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari nekazaritza- eta baso-lurzoruak kontserbatu eta hobetzeko ematen dizkion eskumenak.

El Departamento de Medio Natural y Agricultura tiene atribuidas las competencias que el ordenamiento jurídico confiere a la Diputación Foral de Bizkaia en materia de conservación y mejora de los suelos agrícolas y forestales de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero y Decreto Foral 79/2022, de 31 de mayo, que aprueba su Estructura Orgánica, en particular artículos 1 y 47.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Orobat, foru-dekretu hau egitean eta izapidetzean, Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak bete dira: generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazioari buruzko txostena, kontrol ekonomikoarena eta dagozkion txosten juridikoak eman dira.

Igualmente, en la elaboración y tramitación del presente Decreto Foral se han seguido los trámites marcados en el citado Decreto Foral 87/2021 de la Diputación Foral de Bizkaia, emitiéndose los preceptivos informes de Evaluación Previa de Impacto de Género, de Control Económico y jurídicos correspondientes.

Halaber, foru-dekretu honek genero ikuspegia

El presente Decreto Foral incorpora la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

txertatzen du, hura eratzean zein aplikatzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan adierazten den bezala. Gainera, kontuan hartu da azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Horren bidez, zenbait jarraibide finkatzen dira generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusita dagoena). Horri dagokionez, izapidetze prozesuan foru-dekretuaren 2. oinarrian aipatzen den "Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioaren txostena" gehitu da.

perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el "Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género" al que hace referencia la base número 2 del citado Decreto Foral.

Era berean, foru-dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Igualmente, en la elaboración del presente Decreto Foral se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Beste alde batetik, Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 8., 21. eta horiekin bat datozen artikuluak betez, foru-dekretu honen xedea da deialdi honen konpromisoei aurre egiteko aurrekontu zuzkiduraren erreserba espezifikoa eta nahikoa egitea.

Por otra parte, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 8, 21 y concordantes con la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, es objeto del presente Decreto Foral efectuar la reserva de consignación presupuestaria específica y suficiente para hacer frente a los compromisos que se deriven de esta convocatoria.

Xedapena onesteko organoak duen eskumena Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1°.4. eta 17.2°. artikuluen arabera.

En relación con la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17. 1.° 4 y 17. 2.° de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

Horri jarraituz, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak proposatuta, eta aurretiaz Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak erabaki eta gero, hauxe

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Medio Natural y Agricultura, y previa deliberación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Artikulu bakarra. *Dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea*

Onartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoan orkatzek (*Capreolus capreolus*) eta basurdeek (*Sus scrofa*) eragindako kalteengatik zuzeneko laguntzak emateko oinarri arautzaileak, eta 2023rako deialdia egiten da.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa. *Arauen garapena.*

Eskumena ematen zaio Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatuari, foru-dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan, dagozkion dirulaguntzak ematea barne.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Artículo Único. *Aprobación de las bases y convocatoria de subvenciones*

Se aprueban las bases reguladoras de la concesión de ayudas directas por los daños producidos por el corzo (Capreolus *capreolus*) y el jabalí *(Sus scrofa)* en el Territorio Histórico de Bizkaia, y se efectúa convocatoria para 2023.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición Final Primera. *Desarrollo normativo.*

Se autoriza a la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral, incluida la concesión de las subvenciones pertinentes.

Disposición Final Segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Foru Diputatua / Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura. ARANTZAZU ATUTXA LEJARRETA
Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## AURKIBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Xedea
2. Onuradunak. Betekizunak.
3. Diruz lagundu daitekeen egitatea
4 Laguntza-lerroak.
5. Elkarreragingarritasuna.
6. Datu pertsonalen babesa.
7. Aplikatzekoa den araudia.

II. KAPITULUA. XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

8. Emakidaren prozedura.
9. Ebazpena. Prozedura agintzeko organo eskuduna.
10. Aldi berean beste dirulaguntza batzuk jasotzea
11. Erakunde onuradunen betebeharrak.
12. Laguntzen justifikazioa
13. Emakidaren aldaketa eta ordainketa.
14. Boluntarioki itzultzea
15. Ez-betetzeak eta itzulketak.
16. Zehapen-araubidea
17. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.
18. Emandako dirulaguntzen publikotasuna

III. KAPITULUA. DEIALDIA

19. Kaltea jakinaraztea.
20 Deialdiaren izapidetzea
21. Aurrekontu-esleipena

## INDICE

CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

1. Objeto
2. Personas beneficiarias. Requisitos.
3. Hecho subvencionable.
4. Líneas de ayuda.
5. Interoperabilidad.
6. Protección de datos de carácter personal.
7. Normativa aplicable.

CAPITULO II. DISPOSICIONES ESPECÍFICAS

8. Procedimiento de concesión.
9. Resolución. Órgano competente para la instrucción del procedimiento.
10 Compatibilidad con otras subvenciones
11. Obligaciones de las entidades beneficiarias.
12. Justificación de las ayudas
13. Alteración de la concesión y pago.
14. Devolución voluntaria
15. Incumplimiento y reintegro
16. Régimen sancionador
17. Cuantía y abono de la subvención
18. Publicidad de las subvenciones concedidas

CAPITULO III. CONVOCATORIA

19. Comunicación del daño.
20 Tramitación de la convocatoria
21. Consignación presupuestaria

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

OINARRI ARAUTZAILEAK, ORKATZEK (*CAPREOLUS CAPREOLUS*) ETA BASURDEEK (*SUS SCROFA*) ERAGINDAKO KALTEENGATIK ZUZENEKO LAGUNTZAK EZARTZEKO ETA 2023rako DEIALDIA EGITEKO

BASES REGULADORAS PARA EL ESTABLECIMIENTO DE AYUDAS DIRECTAS POR LOS DAÑOS PRODUCIDOS POR EL CORZO *(CAPREOLUS CAPREOLUS)* Y EL JABALÍ *(SUS SCROFA)* Y SE EFECTUA CONVOCATORIA PARA 2023

## I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

### 1. oinarria. *Xedea*

Laguntza hauen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko baso- eta nekazaritza-sailetan orkatzek (*Capreolus capreolus*) eta basurdeek (*Sus scrofa*) eragindako kalteak arintzeko laguntza ekonomikoa ematea.

### 2. oinarria. *Onuradunak. Betekizunak.*

Foru-dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun izango dira Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan eta, hala badagokio, Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan inskribatuta dauden ustiategien titular diren pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta basoberritzeko baimena duten baso-sailen titularrak ere, baldin eta laguntza-lerro bakoitzean zehaztutako betekizunak betetzen badituzte eta foru-dekretu honetan ezarritako sistemaren barruan kalteak jakinarazi badituzte.

Dekretu honetan aurreikusitako edozein laguntzaren onuradun guztiek betekizun hauek bete beharko dituzte:

1. Nekazaritza- edo baso-sailetan kalteak izan direla jakinarazi izana, foru-dekretu honen 18. oinarrian jasotako sistemaren arabera.

2. Nekazaritzako edo basogintzako edozein laguntza ematean hartutako konpromisoak betetzea edo bete izana.

3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, hala badagokio.

4. Landare-osasunari, erregistro ofizialei eta, hala badagokio, nekazaritza-ustiategien erregistroari buruz indarrean dauden arauak betetzea (1054/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa), bai eta kasuan kasuko jarduerari dagozkionak ere, eta, bereziki, laboreak baldintza agronomiko onetan mantentzea. Kaltetutako baso-sailei

## CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

### Base 1. *Objeto*

Es objeto de las presentes ayudas el apoyo económico destinado a paliar los daños producidos por el corzo (*Capreolus capreolus*) y el jabalí (Sus scrofa) en plantaciones forestales y agrícolas del Territorio Histórico de Bizkaia.

### Base 2. *Personas beneficiarias. Requisitos.*

Serán beneficiarias de las ayudas establecidas en el presente Decreto Foral las personas físicas y jurídicas titulares de explotaciones agrarias inscritas en el Registro de explotaciones Agrarias, y en su caso, en el Registro de Explotaciones Ganaderas de la Diputación Foral de Bizkaia, así como (REGA), y titulares de plantaciones forestales autorizas a repoblación, que cumplan los requisitos especificados en cada línea de ayuda y que hayan comunicado daños dentro del sistema establecido en este Decreto Foral.

Todas las personas beneficiarias de cualquiera de las ayudas previstas en este Decreto deberán cumplir los siguientes requisitos:

1. Haber comunicado daños en plantaciones agrícolas o forestales en base al sistema recogido en la base 18 del presente Decreto Foral.

2. Cumplir o haber cumplido los compromisos adquiridos con ocasión de la concesión de cualquier ayuda agraria o forestal.

3. Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, en su caso.

4. Cumplir las normas vigentes en materia de sanidad vegetal, registros oficiales y registro de explotaciones agrarias, (Real Decreto 1054/2022 de 27 de diciembre) en su caso, así como los correspondientes a la actividad de que se trate y en particular, mantener sus cultivos en buenas condiciones agronómicas. Respecto a las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dagokienez, basoberritzeko baimena izan beharko dute.

plantaciones forestales dañadas, deberán contar con la oportuna autorización para su repoblación.

5. Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea eta ukitutako jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan egitea.

5. Residir en la Comunidad Autónoma del País Vasco y las actividades afectadas se ubicarán en el Territorio Histórico de Bizkaia.

6. Bizkaiko Foru Aldundiak emandako izaera bereko konpentsazio edo kalte-ordainen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta ez egotea.

6. No encontrarse incurso/a en un procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de compensaciones o indemnizaciones de la misma naturaleza concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia, se halle todavía en tramitación.

Kasu horretan, onuradunei konpentsazio horiek emateko eta ordaintzeko, itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaitu beharko dira.

En ese caso, la concesión y el pago de estas compensaciones a las personas beneficiarias quedarán condicionadas a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador.

Ezingo dute inola ere laguntza edo dirulaguntzetan parte hartu eta onuradun izan pertsona fisikoek eta juridikoek honako ustezkoren batean badaude:

- Martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak aldatutako Bizkaiko Mendiei eta Naturagune Babestuen Administrazioari buruzko 3/1994 Foru Arauaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera zehapen irmoa jaso izana.
- Administrazio-, lan- edo zigor-bidean berdintasunerako eta sexuaren zioz bereizkeriarik ez jasotzeko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa jaso izana.
- Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak izatea.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legearen III. tituluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru-arau honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

En ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias de ningún tipo de ayudas o subvenciones las personas físicas y jurídicas:

- Que hayan sido sancionadas de manera firme según lo dispuesto en la Disposición Adicional Séptima de la Norma Foral 3/1994 de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos de Bizkaia modificada por la NF 3/2007, de 20 de marzo.
- Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.
- Cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.
- Que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la presente norma foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

-

3. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea*

1.- Diruz lagunduko dira orkatzek (*Capreolus capreolus*) eta basurdeek (*Sus scrofa*) eragindako kalteak, baldin eta jarraian deskribatutako laguntza-modalitateetako batean sartzen badira, eta, betiere, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

- 2022ko abuztuaren 1etik 2023ko uztailaren 31ra gertatu izana, orkatzek eragindako kalteen kasuan, eta 2022ko irailaren 1etik 2023ko uztailaren 31ra, basurdeek eragindakoen kasuan.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatu izana.
- Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi izana, foru-dekretu honen 18. oinarrian ezarritakoaren arabera.
- Kaltearen zenbatekoa 250 €-tik gorakoa izatea.

2.- Bi laguntza-lerro ezartzen dira: orkatzek eragindako kalteengatiko dirulaguntzak eta basurdeek eragindako kalteengatiko dirulaguntzak.

Laguntza-lerro bakoitzak guztizko muga du, eta, beraz, ez da muga hori gainditu lerro bakoitzean eman diren laguntzen multzoan. Orkatzek eragindako kalteek, guztira, 170.321,50 euroko dirulaguntza muga dute, eta basurdeek eragindako kalteek, guztira, 69.678.50 euroko dirulaguntza muga dute.

4. oinarria. *Laguntza-lerroak:*

<u>1. Lerroa: Orkatzek eragindako kalteengatiko dirulaguntzak:</u>

1.a)- *Orkatzek baso-sailetan eragindako kalteengatiko dirulaguntzak*

Laguntzaren xede izango dira orkatzaren basa-populazioek baso-sailetan eragindako kalteak.

Base 3. *Hecho subvencionable*

1.- Serán objeto de subvención los daños producidos por el corzo (*Capreolus capreolus*) y el jabalí *(sus scrofa)* que se integren en una de las modalidades de ayuda descritas a continuación, y que cumplan en todo caso, los siguientes requisitos:

- Que se hubieran producido desde el 1 de agosto de 2022 y el 31 de julio de 2023, para el caso de los daños ocasionados por el corzo; y desde el 1 de septiembre de 2022 hasta el 31 de julio de 2023, para los ocasionados por el jabalí.
- Que se hayan producido en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- Que hayan sido comunicados al Departamento de Medio Natural y Agricultura según lo establecido en la base 18 del presente Decreto Foral.
- Que la cuantía del daño sea mayor de 250 €.

2.- Se establecen dos líneas de ayuda: subvenciones por daños producido por el corzo y subvenciones por daños producidos por el jabalí.

Cada línea de ayuda tiene un límite subvencional total, de forma que no se ha rebasado ese límite en el conjunto de ayudas que se han otorgado en cada una. Los daños producidos por el corzo tienen en su conjunto un límite subvencional total de 170.321,50 euros y los daños producidos por el jabalí tienen en su conjunto un límite subvencional total de 69.678,50 euros.

Base 4. *Líneas de ayuda:*

<u>1.-Línea 1: subvenciones por daños producidos por el corzo:</u>

1.a)- *Subvenciones por daños producidos por corzo en plantaciones forestales*

Serán objeto de ayuda los daños producidos por poblaciones silvestres de corzo en plantaciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

forestales.

1..- Laguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak honako hauek izango dira:

- Landareetan eragindako kalteak landarea hiltzea eragin behar du, edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna merkataritzarako bideraezina edo ez-komertzial bihurtu.

- Eragindako baso-masaren azalera 0,25 hektareatik gorakoa izango da, eta basoberritzea sastrakarik gabe egongo da. Baso-berritze horren gainean egingo dira dagozkion eta behar bezala mantentzeko lanak, hala nola garbiketa, belar-sastrakak garbitzea, soiltzea, etab.

- Kaltea gertatu den lursailek basoaren kudeaketa jasangarrirako plan bat izan behar dute.

2. Laguntzak jaso ahal izateko, baso-sailen titularrek foru-dekretu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baso-jabetza erabiltzeko eta gozatzeko eskubideen jabe edo titular diren aldetik, edo landaketa egiteko beren jabeekin hitzarmenak hitzartuta dituzten aldetik.

Onuradun izan daitezkeenen titulartasuna egiaztatzeko, Baso Zerbitzuan dirulaguntzak kudeatzeko, basoberritzeak baimentzeko eskaera egiteko edo baso-eremuko beste izapide batzuetarako dauden datuak hartuko dira kontuan.

3. Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

a) Laguntzaren zenbatekoa III. eranskinean ezarritako baremoen % 100erainokoa izango da, kaltea jasan duten saileko zuhaitzen arabera.

Sail berean metatutako kalteen kasuan, zuhaitz berberek ezin izango dute laguntzarik jaso behin baino gehiagotan.

b) Laguntza jaso ahal izateko, hektarea bakoitzeko gutxienez landareen %10ek jasan behar dute eragina.

1º Los requisitos específicos para ser objeto de ayuda serán los siguientes:

-El daño producido en las plantas ha de ser de tal magnitud que haya producido la muerte de la planta o, en su caso, que el daño producido haga el porvenir de la planta inviable o no comercial.

-La superficie de la masa forestal afectada será superior a las 0,25 hectáreas y la repoblación forestal se encontrará libre de matorral. Sobre dicha repoblación se habrán realizado las labores correspondientes y de correcto mantenimiento como son: limpieza, desbroces, clareos, etc.

- Los terrenos donde se haya producido el daño deben contar con un Plan de Gestión Forestal Sostenible .

2º Para poder acceder a las ayudas, los y las titulares de plantaciones forestales deberán cumplir las condiciones establecidas en este Decreto Foral, en calidad de personas propietarias o titulares de derechos de uso y disfrute sobre la propiedad forestal o que tengan concertado con sus propietarios/as convenios para la realización de la plantación.

Para comprobar la titularidad de las posibles personas beneficiarias, se atenderá a los datos obrantes en el Servicio de Montes para la gestión de subvenciones, solicitud de autorización de repoblaciones forestales u otros trámites de ámbito forestal.

3º Respecto de la cuantía de la ayuda:

a) La cuantía de la ayuda será de hasta el 100% de los baremos que se establecen en Anexo III en función de los árboles de la plantación que hayan resultado dañados.

En los casos de daños acumulativos sobre una misma plantación no podrán ser objeto de ayuda los mismos árboles más de una vez.

b) Para poder acogerse a la ayuda se establece un mínimo de plantas afectadas por hectárea de un 10% del total.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Gehienez, hektarea bakoitzeko 6.000 euroko laguntza emango da lau espezie-taldeentzat.

c) Como máximo, la ayuda será de 6.000 euros por hectárea para los cuatro grupos de especies.

d) Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren % 20 kenduko da.

d) No obstante, lo anterior en caso de no disponer de medidas preventivas se detraerá un 20% del importe asignado al terreno que no disponga tales medidas.

- Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.

- El disponer de alguno de los sistemas de cerramiento contemplado en el anexo VII del presente decreto, siempre y cuando estén en buen estado de mantenimiento.

- Banakako babes-elementuak erabiltzea (tubex edo antzekoak).

- Empleo de elementos de protección individuales (tubex o similares).

1.b). *Orkatzek labore zurkaretan eragindako kalteengatiko dirulaguntzak*

1.b). *Subvenciones por daños ocasionados por corzo a cultivos leñosos*.

Diruz lagunduko dira orkatzaren basa-populazioek fruta-arboletan, fruitu txikiak ematen dituzten landareetan eta mintegietan eragindako kalteak, bai eta horiek eragiten duten ekoizpen-galera ere.

Serán objeto de subvención los daños producidos por poblaciones silvestres de corzo en árboles frutales, plantas productoras de pequeños frutos. y viveros además de la pérdida de producción que provocan estas acciones.

1. Dirulaguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak:

1º. Requisitos específicos para ser objeto de subvención:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta dauden nekazaritzako ustiategiak.

a) Explotaciones agrarias inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias (REA) de la Diputación Foral de Bizkaia.

Sailak erregularrak eta homogeneoak izango dira, eta ez da lerrokadura sinplerik edo oin isolaturik onartuko.

Las plantaciones deberán ser regulares, homogéneas, no aceptándose alineaciones simples ni pies aislados.

b) Laguntza jasotzeko eskubidea duen eraginpeko lurzatiaren gutxieneko neurria 0,5 ha izango da.

b) La dimensión mínima de parcela afectada con derecho a ayuda de 0,5 ha.

c) Labore zurkaretan sortutako kalteak, igurzkiengatik eta kimuak jan izanagatik.

c) Daños en cultivos leñosos por escodadura y ramoneo.

Kaltea 5 urtetik beherako landareetan sortutakoa izango da, eta landarea hiltzea eragin behar du edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna bideraezin bihurtu. Adinaren irizpidea betetzetik salbuetsita daude fruitu txikiak ematen dituzten espezieen landareak.

Se contempla el daño en plantas menores de 5 años, cuando la magnitud del mismo haya producido la muerte de la planta o, en su caso, que el daño ocasionado haga inviable el porvenir de la misma. Quedan exceptuadas del cumplimiento del criterio de la edad las plantas correspondientes a las especies productoras de pequeños frutos.

2. Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

2º Respecto a la cuantía de la ayuda:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Laguntzaren zenbatekoa IV. eranskinean ezarritako baremoen % 100erainokoa izango da, kaltea jasan duten landareen arabera, eta VI. eranskinean, mintegietan eragindako kalteetarako.

Sail berean metatutako kalteen kasuan, zuhaitz berberek ezin izango dute laguntzarik jaso urte natural bakoitzean behin baino gehiagotan.

b) Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 €/ha izango da; 2.000 €/ha-ra artekoa, haziak dituzten fruta-arbolentzat, eta 6.000 €/ha, fruitu txikiak ematen dituzten landareentzat.

c) Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren % 20 kenduko da.

Prebentzio-neurritzat hartuko dira:

- Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.
- Banakako babes-elementuak erabiltzea (tubex edo antzekoak).

1.c). *Orkatzek txakolina egiteko mahatsa ekoizteko mahastietan eragindako kalteengatiko dirulaguntzak.*

1. Dirulaguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Mahastizaintza Erregistroan inskribatuta egotea.

b) Laguntza jasoko duen mahastizaintza-ustiategiaren gutxieneko neurria 1,0 ha izango da.

c) Igurzkiek eragindako kalteak mahastietan:

Kaltea 10 urtetik beherako landareetan sortutakoa izango da, eta landarea hiltzea eragin behar du edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna bideraezin bihurtu.

a) La cuantía de la ayuda será de hasta el 100% de los baremos que se establecen en el anexo IV, en función de las plantas que hubieran resultado dañadas y en el anexo VI para los daños causados en viveros.

En el caso de daños acumulativos sobre una misma plantación no podrán ser objeto de ayuda los mismos árboles más de una ocasión por año natural.

b) El importe mínimo subvencionable será de 250€/ha y de hasta 2.000 €/ha para los frutales de pepita y de 6.000 €/ha, para las plantas productoras de pequeños frutos.

c) No obstante, lo anterior en caso de no disponer de medidas preventivas se detraerá un 20% del importe asignado al terreno que no disponga tales medidas.

Se considerará medida preventiva:

- El disponer de alguno de los sistemas de cerramiento contemplado en el anexo VII del presente decreto, siempre y cuando estén en buen estado de mantenimiento.
- Empleo de elementos de protección individuales (tubex o similares).

1.c) *Subvenciones por daños ocasionados por corzo en viñedo para producción de uva para la elaboración. de txakoli.*

1º.Requisitos específicos para ser objeto de subvención

a) Estar inscritas en el Registro vitícola de la Diputación Foral de Bizkaia.

b) La dimensión mínima de la explotación vitícola objeto de ayuda será de 1,0 ha.

c) Daños en viñedo por escodadura:

Se contempla el daño en plantas menores de 10 años y cuando la magnitud del mismo haya producido la muerte de la planta o, en su caso, que el daño ocasionado haga inviable el porvenir de la misma

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Kimuak jan izanak sortutako kalteak.

Uztaren kalteen epea martxoaren 1etik ekainaren 30era bitartekoa izango da.

2º. Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

a) Laguntzaren zenbatekoa IV. eranskinean ezarritako baremoen % 100erainokoa izango da, kaltea jasan duten landareen arabera.

Sail berean metatutako kalteen kasuan, mahatsondo berberek ezin izango dute laguntzarik jaso urte natural bakoitzean behin baino gehiagotan.

b) Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 €/ha izango da, eta gehienez 6.000 €/ha.

c)Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren % 20 kenduko da.

Prebentzio-neurritzat hartuko dira:

- Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.

- Banakako babes-elementuak erabiltzea (tubex edo antzekoak).

1.d) *Orkatzek baratze-laboreetan eragindako kalteengatiko dirulaguntzak.*

Diruz lagunduko dira baratze-lurzatietan orkatzaren basa-populazioek eragindako kalteak, baldin eta baratze-espezie hostodunak eta fruituak edo babarrunak ekoizteko baratze-espezieak hazten badira.

1. Dirulaguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta dauden nekazaritzako ustiategiak.

b) Gutxienez 2.500 m$^2$-ko baratze-azalera izatea; aire zabaleko baratzea eta/edo negutegia izan

d). Daños por ramoneo.

Se establece como periodo de daños a la cosecha entre el 1 de marzo al 30 de junio.

2º Respecto a la cuantía de la ayuda:

a) La cuantía de la ayuda será de hasta el 100% de los baremos que se establecen en el Anexo IV, en función de las plantas que hubieran resultado dañadas.

En el caso de daños acumulativos sobre una misma plantación no podrán ser objeto de ayuda las mismas cepas más de una ocasión por año natural.

b)El importe mínimo subvencionable será de 250 €/ha y el máximo 6.000 €/ha.

c)No obstante, lo anterior en caso de no disponer de medidas preventivas se detraerá un 20% del importe asignado al terreno que no disponga tales medidas.

Se considerará medida preventiva:

- El disponer de alguno de los sistemas de cerramiento contemplado en el anexo VII del presente decreto, siempre y cuando estén en buen estado de mantenimiento.

- Empleo de elementos de protección individuales (tubex o similares).

1.d). *Subvenciones por daños ocasionados por corzo a cultivos hortícolas.*

Serán objeto de subvención los daños producidos por poblaciones silvestres de corzo en parcelas hortícolas en las que se cultiven especies hortícolas de hoja, especies hortícolas para producción de fruto y productores de alubia.

1. Requisitos específicos para ser objeto de subvención:

a) Explotaciones agrarias inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias (REA) de la Diputación Foral de Bizkaia.

b) Disponer de una superficie hortícola mínima de 2.500 m$^2$, pudiendo ser de huerta al aire libre y/o

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

daitezke. Azaleraren araberako muga hori ez zaie aplikatuko titularrak nagusiki nekazari kalifikazioa duen baratze-ustiategiei edo landare-mintegiei.

invernadero. Esta limitación por superficie no será de aplicación para aquellas explotaciones hortícolas o viveros de planta en las que la persona titular tenga la calificación de ATP.

2. Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

2. Respecto a la cuantía de la ayuda:

a) Laguntzaren zenbatekoa V. eranskinean ezarritako baremoen % 100erainokoa izango da, kaltea jasan duten landareen arabera.

a) La cuantía de la ayuda será de hasta el 100% de los baremos que se establecen en el Anexo V, en función de las plantas que hubieran resultado dañadas.

b) Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 €/ha izango da, eta gehienez 6.000 €/ha.

b) El importe mínimo subvencionable será de 250 €/ha y el máximo 6.000 €/ha.

c) Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren % 20 kenduko da.

c) No obstante, lo anterior en caso de no disponer de medidas preventivas se detraerá un 20% del importe asignado al terreno que no disponga tales medidas.

Prebentzio-neurritzat hartuko dira:

- Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.

Se considerará medida preventiva:

- El disponer de alguno de los sistemas de cerramiento contemplado en el anexo VII del presente decreto, siempre y cuando estén en buen estado de mantenimiento.

2. Lerroa:- *Basurdeek eragindako kalteengatiko dirulaguntzak*

2. Línea 2:- *Subvenciones por daños causados por jabalí*

Basurde-populazioek larreetan, bazka-laboreetan, baratze-ustiategietan eta mahastietan eragindako kalteak lagunduko dira.

Serán objeto de ayuda los daños producidos por poblaciones silvestres de jabalí en pastos, cultivos forrajeros, explotaciones hortícolas y viñedos

a).- Dirulaguntza jaso ahal izateko:

a).- Para ser objeto de subvención:

1º Nekazaritzako ustiategiek Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan, bazka-laboreen eta larreen kasuan.

1º Las explotaciones agrarias deberán estar inscritas en el Registro de Explotaciones Agrarias de la Diputación Foral de Bizkaia y en el Registro Explotaciones Ganaderas, en el caso de los cultivos forrajeros y pastos.

2º Nekazaritzako ustiategiak produkzio-orientazioan oinarrituta eduki beharko dituen gutxieneko neurriak:

- Larre eta belardietan kalteak jasaten dituzten ustiategiek gutxienez 05.UTAko neurria izan beharko dute, eta Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorrean alta emanda egon beharko dute.

2º Dimensiones mínimas que deberá disponer la explotación agraria en base a su orientación productiva:

- Las explotaciones que sufran daños en pastos y praderas deberán tener una dimensión mínima de 05.UTAs y estar de alta en el REGA.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Gutxienez 5 ha bazka-arto ekoizten dituzten abeltzaintzako ustiategiak. Gainera, Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorrean alta emanda egon beharko dute.
- 2.500 m$^2$-ko gutxieneko neurria duten baratze-ustiategiak.
- Gutxienez 1 ha-ko mahasti-ustiategiak, txakolina egiteko mahatsa ekoiztekoak.

- Explotaciones ganaderas que produzcan al menos 5 ha. de maíz forrajero. Además deberán estar de alta en REGA.
- Explotaciones hortícolas con una dimensión mínma de 2.500 m$^2$.
- Explotaciones de viñedo para producción de uva para la elaboración de txakoli de al menos 1 ha.

3º Landareetan eragindako kalteak landarea hiltzea eragin behar du, edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna merkataritzarako bideraezina edo ez-komertzial bihurtu.

3º El daño producido en las plantas ha de ser de tal magnitud que haya producido la muerte de la planta o, en su caso, que el daño producido haga el porvenir de la planta inviable o no comercial.

Larrean sortutako kaltetzat hartuko da larrea desagertu bada edo ezin bada aprobetxatu ez segarekin moztuta, ez aziendak berak hortzekin moztuta ere.

Se considerará el daño en pasto cuando éste haya desaparecido o no se pueda aprovechar ni a siega, ni a diente por el ganado.

b).- Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

b).-Respecto de la cuantía de la ayuda:

1º) Dirulaguntzaren zenbatekoa VI. eranskinean ezarritako baremoen % 100erainokoa izango da, kaltetuta geratu den landutako azaleraren arabera, eta, ostera, IV. eranskinean agertzen direnen araberakoa, mahatsondo-sailen kasuan.

1º La cuantía de la subvención será de hasta el 100% de los baremos que se establecen en el Anexo VI, en función de la superficie cultivada que hubiera resultado dañada y los que constan en el Anexo IV en relación a la plantación de la vid.

2º. Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 €/ha izango da, eta gehienez 6.000 €/ha.

2º El importe mínimo subvencionable será de 250 €/ha y el máximo 6.000 €/ha.

3º Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren % 20 kenduko da.

3º No obstante, lo anterior en caso de no disponer de medidas preventivas se detraerá un 20% del importe asignado al terreno que no disponga tales medidas.

Nekazaritzako ustiategien kasuan, larreen kasuan izan ezik, honako hauek hartuko dira prebentzio-neurritzat:

Para el caso de explotaciones agrarias, excepto para los pastos, se considerará medida preventiva:

- Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.
- Artzain elektrikoa, jarria eta funtzionala izatea.

- El disponer de alguno de los sistemas de cerramiento contemplado en el anexo VII del presente decreto, siempre y cuando estén en buen estado de mantenimiento.
- Disponer de pastor eléctrico, colocado y funcional.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*5. oinarria. Elkarreragingarritasuna.*

Bizkaiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez eta azaldutako elkarreragingarritasun zerbitzuen bitartez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden laguntza horien administrazio izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuei buruz, baldin eta eskatzaileek berariaz aurka egiten ez badute. Kasu horretan, eskatutako ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eska ditzake, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 6.e) artikuluari lotuta.

Era berean, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak foru-dekretu honetan jasotako inguruabarrak egiaztatzeko beharrezkoak diren jarduketak egin ahal izango ditu Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

*Base 5. Interoperabilidad.*

El Servicio de Fauna Cinegética y Pesca del Departamento de Medio Natural y Agricultura mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, a través de los servicios de interoperabilidad expuestos, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas solicitantes requeridos para la tramitación administrativa de estas ayudas que obren en poder de la Administración, siempre que no exista una oposición expresa por parte de las personas solicitantes, en cuyo caso deberán aportar los certificados y documentos requeridos. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Fauna Cinegética y Pesca podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación, todo ello según los términos previsto del artículo 28.2 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común, en relación al artículo 6.e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Asimismo, el Departamento de Medio Natural y Agricultura podrá realizar las verificaciones necesarias de las circunstancias contempladas en el presente Decreto Foral en base a lo establecido en la Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica de Protección de Datos (LO 3/2018).

*6. oinarria. Datu pertsonalen babesa.*

Interesdunak emandako datuak foru dekretutik eratorritako prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; horren bidez, indargabetu egiten da 95/46/EE Zuzentaraua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Europako araudia egokitzen eta osatzen du) aurreikusitakoaren arabera.

*Base 6. Protección de datos de carácter personal.*

Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ukitutako pertsonak baimenik ematen ez badu, edo lehen adierazitako araudian aurreikusitako kasurik ematen ez bada, datuak ez zaizkie inola ere hirugarrenei lagako.

En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

Administrazio publikoek datu pertsonalak adierazteko eskainitako edozein bide erabiliz egiten direnean eskabideak, organo hartzaileak, bere eskumenak erabiliz, datuen zehaztasuna egiaztatzeko beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko ("ahaztua izateko eskubidea"), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du. Halaber, eskubidea du erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan, eta informazio hori zabaldu egin daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko datuen babesari buruzko atalean (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión («derecho al olvido»), limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos).

*7. oinarria. Aplikatzekoa den araudia*

*Base 7. Normativa aplicable*

Dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak aplikatzekoa den araudian eta eskabideak ebazteko foru-aginduetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Las subvenciones previstas en este Decreto se regirán por lo establecido en el mismo y en las Ordenes Forales de resolución de las solicitudes.

Modu osagarrian, arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen Araubide Juridiko Orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretua, Foru Administrazioak emandako Dirulaguntzen Araubide Juridiko Orokorra arautzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua aldatzen duena (Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzen prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida onartzen duena; Bizkaiko Foru

De forma supletoria será de aplicación lo establecido en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Régimen Jurídico General de Subvenciones; el Decreto Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero, que modifica el Reglamento de Subvenciones, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia; el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; Ogasun eta Finantzako foru diputatuaren 1305/2015 Foru Agindua, ekainaren 18koa, dirulaguntzak eta dirulaguntza publikoak ematearen arloko gastua fiskalizatzeko prozedura onartzen duena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko araudia; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren eremuan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, bai eta aplikatu beharreko beste edozein araudi ere.

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia; en la Orden Foral del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas 1305/2015, de 18 de junio, por el que se aprueba el procedimiento para fiscalización del gasto en materia de concesión de subvenciones, y subvenciones públicas, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su normativa de desarrollo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público de las Administraciones Públicas, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica; el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Halaber, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere aplikatuko da, bai subsidiarioki edo ordezko gisa aplikatzekoa den gainerako araudia ere.

Asimismo, también será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

## II. KAPITULUA. XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

### 8. oinarria. *Emakidaren prozedura*

Laguntza hauek zuzeneko emakidaren araubidean emango dira Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) eta 26.2 artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

Foru-administrazioak ehiza-espezieen kudeaketan aldez aurretik ezarritako kontrolak basurdearen eta orkatzaren ekintzek nekazaritza- eta baso-ingurunean duten eraginari buruzko datuak ematen ditu. Horrela, Natura Ingurune eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak konpentsaziorako laguntza-mekanismo bat eratzen du, eraginkortasuna eta kalteak jasan dituzten herritarren kargak murriztea helburu duena.

## CAPITULO II. DISPOSICIONES ESPECÍFICAS

### Base 8. *Procedimiento de concesión*

Las presentes ayudas se otorgan en régimen de concesión directa, según lo establecido en el artículo 20.2.c) y 26.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

El control previo establecido por la administración foral en la gestión de las especies cinegéticas proporciona datos sobre la incidencia en el medio agrícola y forestal de las acciones del jabalí y el corzo. De esta forma el Departamento de Medio Natural y Agricultura articula un mecanismo de ayudas dirigido a la compensación que se busca la eficacia y la disminución de cargas en la ciudadanía que ha soportado los daños.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru dekretu honen I. eta II. eranskinetan, dirulaguntzaren onuradunen behin-behineko zerrenda agertzen da, bai eta hura kalkulatzeko kontuan hartu diren datuak ere.

En el anexo I y II al presente decreto foral figura el listado provisional de la relación de personas que resultan beneficiarias de la subvención, así como los datos que han se han tenido en cuenta para el cálculo de la misma.

Proposatutako onuradunen artean, daturen bat egiaztatzeko badago, onuradunek hamar eguneko epea izango dute Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako dokumentazioa aurkezteko.
Zerrenda horrek Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren foru-agindua osatuko du, zeinaren bidez zuzenean ematen baitira dirulaguntzak.

Si entre las beneficiarias propuestas se encuentran aquellas de las que es necesario confirmar algún dato, estas dispondrán de un plazo de diez días para aportar la documentación requerida por la diputación Foral de Bizkaia
Este listado formará la Orden Foral de la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura, a través de la cual se conceden de forma directa las subvenciones.

Behin betiko ebazpena bakarra izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta jakinarazpenaren ondorioak Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatuko dira. Orobat, behin betiko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie onuradunei, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

La resolución definitiva, que será única, será publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia causando los efectos de la notificación según los establecido en el artículo 45 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Así mismo, La resolución definitiva será comunicada individualmente a las personas beneficiarias, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio horretan eskumena duen salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Alabaina, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa ere jar liteke, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru-diputatuari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo competente de este orden jurisdiccional en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la notificación de dicha resolución, sin prejuicio de la interposición, con carácter potestativo, de recurso de reposición ante la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural en el plazo de un mes desde el día siguiente a la notificación.

### 9 oinarria. *Ebazpena. Prozedura agintzeko organo eskuduna*

### Base 9. *Resolución. Órgano competente para la instrucción del procedimiento*

1. Foru-dekretu honetako espedienteak Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak izapidetuko ditu. Zerbitzu hori izango da prozeduraren instrukzio-organoa, eta ofizioz egingo ditu ebazteko eskumena duen organoari ebazpen-proposamena formulatzeko behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

1. Los expedientes de este Decreto Foral serán tramitados por el Servicio de Fauna Cinegética y Pesca del Departamento de Medio Natural Y Agricultura, que será el órgano instructor del procedimiento, que realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales deba formularse la propuesta de resolución al Órgano competente para resolver.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ebazpen-proposamena egiteko, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuak kontuan hartu du kalteen jakinarazpenetan jasotako informazioa eta, hala badagokio, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Baso Zerbitzuan, Nekazaritza Zerbitzuan eta Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuan eskuragarri dauden erregistro eta baseetako informazioa. Horrez gain, dirulaguntzaren xedearekin lotuta beharrezkotzat jotzen dituzten kontrol- edo ikuskapen-lan guztiak egin ahal izango ditu.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak zuzenean emango ditu laguntzak foru-agindu bidez, Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) eta 26.2 artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

Kontabilitate-ondorioetarako, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak ebazpeneko behin-behineko foru-agindua eman ahalko du, eta horren barne egongo da onuradun posibleen zerrenda bat.

Emakida egiteko kontabilitate-eragiketak gauzatu eta gero, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak prozeduraren behin betiko ebazpena emango du.

Behin-behineko ebazpena behin betikoa izango da, baldin eta proposatutako onuradunek une oro eta deitutako laguntzak izapidetu eta kudeatu bitartean, foru-dekretu honetan ezarritako zerga-betebeharrak betetzen badituzte.

Para la elaboración de la propuesta de resolución el servicio de Servicio de Fauna Cinegética y Pesca del Departamento de Medio Natural y Agricultura, se ha tenido en cuenta la información contenida en las comunicaciones de daños y, en su caso, la información disponible los registros y bases disponibles en el servicio de Montes, Servicio Agrícola y Servicio de Fauna Cinegética y Pesca del Departamento de Medio Natural y Agricultura pudiendo realizar, complementariamente, cuantas labores de control o inspección consideren necesarias en relación con el objeto de la subvención.

La Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura será quien a través de Orden Foral conceda las ayudas de forma directa, según lo establecido en el artículo 20.2.c) y 26.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

A efectos contables, la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura podrá dictar una Orden Foral provisional de resolución que incluirá una relación de las potenciales beneficiarias.

Una vez realizadas las operaciones contables necesarias para realizar la concesión, la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura emitirá la resolución definitiva del procedimiento.

La resolución provisional resultará definitiva en el caso de que las personas beneficiarias propuestas cumplan en todo momento y durante la tramitación y gestión de las ayudas convocadas, con las obligaciones tributarias establecidas en el presente Decreto Foral.

10. oinarria. *Aldi berean beste dirulaguntza batzuk jasotzea.*

1. Foru-dekretu honetan jasotako dirulaguntzak helburu berari begirako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateratu ahal izango da; hala, laguntza horiek administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik etorri ahal izango dira edo estatu edo Europar Batasun mailako erakundeetatik, betiere gastu hautagarri berberetarako gehienezko laguntzaren intentsitatea errespetatzen bada.

Nolanahi ere, laguntza horiek metatu ahal izango dira Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sartzen diren beste laguntza batzuekin

Base 10. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

1. Las subvenciones del presente Decreto Foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que se respeten para los mismos gastos elegibles la intensidad de la ayuda máxima.

En todo caso, estas ayudas podrán acumularse con otras ayudas que entren en el ámbito de aplicación del Reglamento (UE) n.º 1408/2013 de la Comisión de 18 de diciembre de 2013,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

(erregelamendu hori Batzordearen 2019ko otsailaren 21eko 2019/316 (EB) Erregelamenduak aldatu zuen, minimis laguntzei buruzkoak (EO L 352, 2013-12-24koa)), kontuan hartuta ez direla 20.000 eurotik gorakoak hiru ekitaldi fiskaletan.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, inola ere ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Aipatutako mugaren bat gainditzuz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion zenbatekoa kenduko zaio.

4. Onuradunek Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu dituztela, eta, hala eskatzen bada, egin duten itzulketa-gutunaren kopia aurkeztu beharko dute. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, dagokion itzulketa-prozedura hasteko.

11. oinarria. *Erakunde onuradunen betebeharrak.*

1. Foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek, edonola ere, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Halaber, dirulaguntza eman izana argitaratu eta hamabost egunetan onuradunak ez badio, berariaz eta idatziz, laguntza horri uko egiten edo argi eta garbi uko egiten diolako egintzarik ematen ez denean, laguntza onartzen dela ulertuko da.

modificado por el Reglamento (UE) número 2019/316 de la Comisión de 21 de febrero de 2019 relativo a las ayudas de minimis (DO L 352 de 24-12-2013), teniendo en cuenta que no se superen los 20.000 euros en tres ejercicios fiscales.

2. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.

4. Las personas beneficiarias deberán comunicar al Departamento de Medio Natural y Agricultura, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado. Todo ello a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

Base 11. *Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

1. Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en este Decreto Foral deberán cumplir en todo caso, además de las obligaciones establecidas con carácter general en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, las siguientes:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días desde la fecha de publicación de la concesión de la subvención la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma así como en el caso de realización de actos inequívocos en tal sentido, se entenderá que ésta queda aceptada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea, eta emateko edo, hala badagokio, likidatzeko ebazpenean ezarritako baldintzekin bat etorriz.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la resolución de concesión o de liquidación en su caso.

c) Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Departamentuari, Ogasun eta Finantza Sailari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunak betetzean foru-dekretu honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazioa ematea.

c) Facilitar a los Departamentos de Sostenibilidad y Medio Natural y de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a este Decreto Foral.

d) Berdintasunaren arloko betebeharrak:

d) Obligaciones en materia de igualdad:

d.1) Pertsona fisiko edo juridikoek gizon eta emakumeen berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, eskuratzean, kontratazioan eta iraungitzean, sailkapen profesionalean, promozioan, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsarien politikan, erantzunkidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa kontziliatzean, laneko kalitate eta egonkortasunean, lansaioaren iraupen eta antolaketan eta ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta hitzarmen kolektiboan. Hala, lan baldintza duinak, egokiak eta ez baztertzaileak ziurtatuko dituzte.

d.1) Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

d.2) Pertsona fisiko edo juridikoek zaindu beharko dute emakume eta gizonen trataera, protagonismoa eta balorazioa baliokidea izan daitezela, eta berdintasunean, presentzia orekatuan, aniztasunean, erantzunkidetasunean eta genero rol eta identitateen askotarikotasunean oinarritutako irudia sustatzea. Hori guztia idatzizko, ahozko nahiz ikono bidezko informazioetan, publizitate ekintzetan, barne nahiz kanpo komunikazioan, modu formalean eta informalean, bai eta proiektu edo jarduerarekin lotutako edo horietarako sortutako materialei dagokienez ere.

d.2) Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

d.3) 50 pertsonatik gorako plantilla duten pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako

d.3) Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan bat izateko betebeharra betetzen dela eta behar bezala ezartzen dela egiaztatu beharko dute.

Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

d.4) Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek neurriak hartu beharko dituzte lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta desagerrarazteko, eta, bereziki, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.

d.4) Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

e) Erakundeen laguntza jasotzen duten elkarteek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, bai eta beren jardueraren publizitatea egiteko erabilitako liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan ere.

e) Las asociaciones perceptoras de una ayuda de las entidades deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada así como en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad.

2. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko dira foru-dekretu honen eta Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuari dagozkion laguntzak arautzen dituzten gainerako foru-dekretuen babesean ekitaldian emandako dirulaguntzak, 3.000 euro edo gehiagokoak badira.

2. De conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia con carácter anual, las subvenciones concedidas en el ejercicio al amparo de este y los demás Decretos Forales reguladores de ayudas cuya gestión corresponda al Servicio de Fauna Cinegética y Pesca cuyo importe sea igual o superior a 3.000 €.

3. Azkenik, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldi batean zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreren % 40 foru-aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik jasotzen dutenei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

3. Finalmente, la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

12. oinarria. *Laguntzen justifikazioa*

Foru-dekretu honen 6. oinarrian ezarritako laguntza bakoitza kudeatzen duten zerbitzuek egiten dituzten egiaztatzeko, kontrolatzeko edo ikuskatzeko eragiketak dirulaguntzaren justifikazioko kontu gisa erabiliko dira, Dirulaguntzen Foru Erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 54. eta 57. artikuluetan, bereziki 57.3 artikuluan, xedatutakoaren ondorioetarako.

Base 12. *Justificación de las ayudas*

Las operaciones de comprobación, control o inspección que realicen los servicios gestores de cada ayuda establecidas en la base 6 de este Decreto Foral operaran como cuenta justificativa de la Subvención a efectos de lo dispuesto en los artículos 54 y 57, en particular 57.3, del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, que aprueba el Reglamento Foral de Subvenciones.

13 oinarria. *Emakidaren aldaketa eta ordainketa*

Kasu bitan gerta daiteke dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu behar izatea: batetik, laguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatu denean, baina laguntzaren xedea betetzat jotzen bada betiere; bestetik, eta hala badagokio, ordaindu daitekeen gehieneko kopurua gainditzen denean, laguntzarekin batera beste dirulaguntza batzuk lortu direlako.

Horretarako, aldaketarako ebazpena emango du Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak. Ebazpenaren bidez doitu egingo dira emandako dirulaguntzak.

Base 13. *Alteración de la concesión y pago*

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las subvenciones siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la superación del límite máximo de la cuantía auxiliable por obtención concurrente de otras subvenciones podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones.

A estos efectos, por el Departamento de Medio Natural y Agricultura se dictará la oportuna resolución de modificación en la que se ajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

*14 oinarria. Boluntarioki itzultzea*

1. Borondatezko itzulketa izango da onuradunak organo emaileak aurretiaz hori eskatu gabe egin badu.

2. Erakunde onuradunak berak eskatzen duenean dirulaguntza itzultzeko, ordainketa gutunaren bidez egin beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko eredu ofizialaren arabera.
3. Onuradunek boluntarioki laguntza itzuli ahal izango dute, eta horren berri eman beharko diote Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuari. Sail horrek, foru-agindu bidez, laguntza itzultzeko agiria emango du, eta berandutze-interesak ezarriko ditu, Dirulaguntzen Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

*Base 14. Devolución voluntaria*

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la beneficiaria sin el previo requerimiento del órgano concedente.

2. La devolución de la subvención foral a instancia de la propia beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago según modelo oficial de la Hacienda Foral de Bizkaia.
3. Las personas beneficiarias podrán proceder a la devolución voluntaria de la ayuda concedida, comunicándolo al Servicio de Fauna Cinegética y Pesca del Departamento de Medio Natural y Agricultura. Por dicho Departamento, mediante Orden Foral, se emitirá el correspondiente documento de devolución de la Ayuda y se establecerán los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

15. oinarria. *Ez-betetzeak eta itzulketak.*

Onuradunak foru-dekretu honetan eta emandako dirulaguntzaren onespen-ebazpenean ezarritako baldintzak eta helburua betetzen ez baditu, edo dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen ez eta hura jasotzen badu, emandako laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak Bizkaiko Foru Ogasunari itzuli beharko dizkio, Bizkaiko Foru Administrazioak emandako Dirulaguntzen Araubide Juridiko Orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan eta aplika daitekeen gainerako araudian xedatutakoaren arabera. Horrez, gain aplikatzekoak diren legezko interesak ere itzuli beharko dizkio, hargatik eragotzi gabe dagozkion ekintzak, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuei buruzko foru-araudian xedatutakoari jarraikiz. Diru kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira legezko ondorioetarako.

Laguntzak eman diren helburuak ez diren bestelakoak betetzeko aplikatzen badira, dirulaguntza osorik itzuliko da.

Eskatzaileak datuak ezkutatzen baditu, aukera egongo da emandako dirulaguntza osorik gehi dagozkion berandutze-interesak itzultzea eskatzeko.

1. Hurrengo kasuetan jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, eta dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutze-interesak eskatuko dira; hala badagokio, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da kasu hauetan:

a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatzekoa den araudian ezarritako betebehar edo baldintzaren bat betetzen ez denean.

b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat dagoenean.

2. Itzuli beharreko zenbatekoak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondore guztietarako.

Base 15. *Incumplimiento y reintegro*

El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de las condiciones y finalidad establecidas en este Decreto Foral y en la resolución aprobatoria respecto de la subvención concedida, así como su obtención sin reunir las condiciones requeridas para ello, implicará la pérdida del derecho a percibir la ayuda concedida y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Hacienda Foral de Bizkaia las cantidades que hubiere percibido, de conformidad con lo dispuesto en el Título II de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia, en el Título III del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones y en la restante normativa aplicable, así como los intereses legales que resulten de aplicación, sin perjuicio de las acciones que procedan, conforme a lo dispuesto en la normativa foral presupuestaria de la Diputación Foral de Bizkaia. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes.

La aplicación de las ayudas a fines distintos de aquellos para las que fueron concedidas dará lugar al reintegro de la subvención concedida.

La ocultación de datos por parte de la solicitante podrá dar lugar a la exigencia del reintegro de la subvención concedida más los intereses de demora correspondientes.

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro y, en su caso, la pérdida del derecho al cobro de la subvención:

a) Cuando se incumpla alguna de las obligaciones o condiciones establecidas en las presentes bases, en la resolución de la concesión o en la normativa de aplicación.

b) Cuando se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, o en el Decreto Foral 34/2010.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de Derecho Público a todos los efectos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplika dakiekeen berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

3. El interés de demora aplicable a los importes a reintegrar será el previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

4. Itzulketa-prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en el en el título II de la Norma Foral 5/2005, y en el título III del Decreto Foral 34/2010.

16. oinarria. *Zehapen-araubidea.*

Base 16. *Régimen Sancionador.*

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatutakoa izango da.

1. El régimen de infracciones y sanciones será el dispuesto en el título IV de la Norma Foral 5/2005 y en el título IV del Decreto Foral 34/2010.

2. Dirulaguntzen Foru Arauaren 61. artikuluan aipatzen den zehapen-prozedura administratiboa ofizioz hasiko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmena arautzen duen otsailaren 20ko 2/1998 Legean araututakoa izango da, foru arau horretan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuan (dirulaguntzen erregelamendua onesten du) jasotako berezitasunekin.

2. El procedimiento administrativo sancionador a que se refiere el artículo 61 de la Norma Foral de Subvenciones se iniciará de oficio y será el regulado por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, reguladora de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con las especialidades contempladas en dicha Norma Foral y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, 39/2015 Legea), Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da, betiere aurrekoen aurka ez badoa.

3. Será de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015), en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo que no se oponga a las anteriores

17. oinarria. *Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.*

Base 17. *Cuantía y abono de la subvención*

Onuradun bakoitzari esleitutako dirulaguntzaren azken zenbatekoa kalkulatzeko, dirulaguntzen lerro bakoitzerako esleitutako gehieneko zenbatekoaren banaketa proportzionala hartu da kontuan.

La cuantía final de la subvención asignada a cada persona beneficiaria se ha calculado en base al reparto proporcional de la cantidad máxima consignada para cada línea subvencional.

Behin betiko ebazpen-proposamena egin ondoren,

Se procederá al pago de las presentes ayudas una

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZQU2-MONW-JWYJ-C5AC
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagoen banku-kontuan ordainduko dira laguntzak, edo, hala badagokio, zuzenketa egin ondoren onuradunek aurkeztu dituztenetan.

vez efectuada la propuesta de resolución definitiva en la cuenta bancaria que figure en manos de la Diputación foral de Bizkaia o en su las que hayan sido aportadas por las personas beneficiarias tras la subsanación, en su caso.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak ez badu ordainketa egiteko konturik, onuradun izan daitekeenari kontsulta egingo zaio, foru-administrazioari kontu-zenbaki bat eman diezaion.

Si el departamento de Medio Natural y Agricultura no tuviera conocimiento de ninguna cuenta para poder realizar el pago, se consultará a la posible posible beneficiaria para que facilite una cuanta a la administración foral.

Dekretu honen bidez aurreikusitako emakidarako eta laguntzen ordainketarako, nahitaezko baldintza da onuradunek egiaztatzea zerga-betebeharrak, zuzenbide publikoko gainerako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin hartutakoak betetzen dituztela. Inguruabar hori eskaera aurkezteaz batera egiaztatu behar da, eta, gainera, laguntza emateko unean, betebeharra aitortzeko unean, eta ordainketa egiteko unean ere, baldintza horri eutsi behar zaio. Titularkidetasunen kasuan, titularkidetasuna osatzen duten pertsona guztiei dagokie egiaztapen hori egitea.

La concesión y el pago de las ayudas previstas en el presente Decreto queda condicionada a la acreditación por parte de las beneficiarias del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y frente a la Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá acreditarse con la presentación de la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago. En el caso de cotitularidades, esta acreditación corresponde a todas las personas que forman parte de la cotitularidad.

Kaltearen jakinarazpena pertsona bakar batek egin badu proiektuaren sustatzaile gisa, sustatzaile izendatutako horri egingo zaio ordainketa.

En los casos de cotitularidad en los que la comunicación del daño la ha presentado una sola persona como promotora del proyecto, el pago se efectuará a esa persona designada como promotora.

Halaber, erakunde onuradunei laguntza horiek eman eta, kasuan kasu, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiak eta bere erakunde autonomoek eman dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen inguruan hasten diren dirua itzultzeko prozedurak edo zehapen prozedurak amaituta egotea.

Así mismo la concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a las entidades beneficiarias, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

